

FORMAKUNTZAN PARTE HARTZEKO GONBIDAPENA:

**GOBERNANTZA LOKAL ETA ERALDATZAILEA ELIKADURA
SUBIRANOTASUNA ETA GENERO BERDINTASUNAREN GAKOETATIK.**

<http://bit.ly/gob-alimentaria-navarra>

Dokumentu honen bidez formakuntza eta esperientzien trukaketa saio batzuetan parte hartzera gonbidatzen zaitugu, zeinetan gaur egungo elikadura sistema, elikadura gobernantza lokala, gai hauetan erabilgarri diren tresna eta prozesuak... aztertuko diren, beti ere genero berdintasun ikuspegiarekin.

9 orduko formazioa izango da, 3 ordutako 3 saiotan banatua. Saio bakoitzean ondoko gaiak landuko dira hurrenez hurren:

- 1- Zein dira gaur egungo elikadura sistemaren ondorioak eta zein alternatiba ematen dizkigu elikadura subiranotasunak?
- 2- Genero berdintasuna nekazal eremuan.
- 3- Milango ituna, elikadura gobernantza lokal baten bidean.

Prozesu hau langile teknikoei eta erabakiak hartzeko posizioan dagoen jendeari zuzenduta dago (zinegotziak, alkateak...), beraien egunerokotasunean gizaritari eragiten dizkion erabakiak hartzeko eskumena duen jendeari.

Formakuntza prozesu berdina Nafarroako bost merindadeetan errepikatuko da, kasu bakoitzean zonaldeko pertsonak bilduz. Zangotzako merindadeko saioak ondoko data eta tokietan izango dira.

- | | |
|--|---------------------------------------|
| 1. saioa → Data: Martxoak 30, osteguna, 10.00-13.00 | Tokia: Zangotzako Kultur Etxea |
| 2. saioa → Data: Apirilak 4, asteartea, 10.00-13.00 | Tokia: Zangotzako Kultur Etxea |
| 3. saioa → Data: Apirilak 6, osteguna, 10.00-13.00 | Tokia: Zangotzako Kultur Etxea |

Formakuntzaren helburuak asko dira: elikadura eta nekazal sektorearen gaineko politika publikoei buruz hitz egitea; interesgarriak eta baliagarriak izaten ahal zaizkigun eskualdeko nahiz urrutiagoko esperientziak trukatzeari; partaideek beraien egunerokotasunean erabili ahal izango dituzten tresna eta baliabideak luzatzea; sinergiak eta harremanak sortu lurraldeko agente desberdinen artean.

Horregatik, prozesuan parte hartzera gonbidatzen zaitugu, esperientzia polita izango da bai maila indibidualean bai talde mailan, eta ziur esperotakoa baino gehiago ikasiko dugula.

Saioak Ester Montero eta Mundubat eta Mugarik Gabe Nafarroako pertsonalak dinamizatuko dituzte.

Animatu!

NONDIK DATOR FORMAKUNTZA PROZESU HAU?

Formakuntza prozesu hau "HACIA UNA GOBERNANZA LOCAL Y TRANSFORMADORA EN CLAVE DE SOBERANÍA ALIMENTARIA E IGUALDAD DE GÉNERO" proiektuaren baitan biltzen da. Proiektu honek elikadura subiranotasuna eta genero berdintasunaren bidean lan egin nahi du Nafarroa mailan, horretarako elikadura sistema lokalak eta jasangarriak, inklusiboak, erresilienteak, seguruak eta dibertsifikatuak bultzatuz arlo lokalean, elikadura osasuntsu, irisgarri eta kulturalki egoki bat ahalbidetuz Nafarroan.

*Proiektuari eta egingo diren ekintzei buruzko informazio gehiago jakin nahi izanez gero, ikus "Presentación del proyecto" dokumentua.

ANTOLATZEN DUTE:

ORDAINTZEN DU:

LAGUNTZEN DUTE:

